

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2020/21

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

3. maila

**IRAKASGAIA**

25956 - Gatazken Teoria eta Analisia

**ECTS kredituak:** 4,5

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Deskribapen laburra:

Irakasgai honek, ikasleria gatazka sozialen inguruko soziologiaren eredu teorikoengana hurreratu nahi du, baita bake ikasketa eta konfliktologiari buruzko ikuspuntu instrumentalaren erabilera ere. Gatazkak ulertu eta analizatzeko tresna metodologikoak landuko dira, baita gatazken gestio, konponbide eta eraldaketarako metodo alternatiboak ere. Gaur egun eremu ezberdinetan garatzen diren gailu eta programak azalduko dira. "Gatazketan eskuhartzea eta eraldatzea" minorrari dagokio, F moduluaren barne.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Konpetentzia zehatzak:

(KE1) Gatazka sozialen teorien autore eta ikuspuntu nagusien oinarri teoriko eta metodologikoak ezagutu eta ulertu(M05CM01)

(KE2)Gizarte bazterkeri eta marginazioaren analisirako ahalmen kritikoa garatu, baita komunikazio eta talde lana ere, gatazka sozialaren ikuspuntutik eta parte diren pertsona eta kolektiboen balorazio zein arrazonamenduak kontuan izanik(M05CM07 eta M05CM08)

(KE3)Arazo zehatzei buruzko argudio eta proposamenak defendatu, garatu eta eztabaidatu, Gizarte Langintzara gerturatuz eta komunikatzeko ahalmena garatu, ahoz zein idatziz(M05CM10)

**CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**

- GIZARTE ZIENTZIAN EMATEN DIREN GATAZKEN ANALISIAREN TEORIA ETA IKUSPUNTUAK
- GATAZKA MOTEN EREMU, DINAMIKA ETA MOTAK: GARAPEN PROZESUAK ETA ELKAR EKITEN DUTEN AKTOREAK
- GATAZKA SOZIAL MOTA EZBERDINAK INTERPRETATZEKO ANALISI EREDUAK
- GATAZKA SOZIALEN IKERKETARAKO GAKO METODOLOGIKOAK
- GATAZKA MOTA EZBERDINAK IDENTIFIKATU ETA ERALDATZEKO IKUSPUNTU ETA ESTRATEGIAK
- GATAZKEI ERANTZUTEKO TRESNAK. OINARRIAK ETA BERAUEN APLIKAZIOA FAMILIA, KOMUNITATE, HEZKUNTZA, KULTUR ARTEKO, POLITIKO, PENAL ETA KARTZELAREN EREMUETARA

**METODOLOGIA**

- Magistrala: Gai zerrendan datozen eduki teorikoen azalpena. Osagarri bezala, ikus entzunezko baliabideak erabiliko dira.
- Gelako praktikak: Gai zerrendaren eduki teorikoaren aplikazio praktikoa.
- Ikasleen lan autonomoa.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	33,75		11,25						
<b>Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a</b>	50,5		17						

**Legenda:**

M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio sistemaren inguruko orientazioak

Irakasgai honetan, ebaluazio sistema JARRAIA gailentzen da, eta horrek eskoletara etorrera eskatzen du. Ebaluazio sistema honi dagozkion ebaluazio portzentaiak hauek dira:

- Banakako ariketak (notaren %50).
- Testu iruzkin froga (notaren %40).
- Gelan talde ariketak (notaren %10).

Ebaluazio jarraian etorrera neurtzeko bidea: ikasleak, irakasleak zenbait egunetan ezarritako lanen %80a entregatu behar ditu behintzat.

Testu iruzkin frogan, zenbait ebaluazio galderei erantzun beharko zaie. Horretarako, lauhilabetean zehar irakasgai landutako materiala kontsultatu eta erabili ahal izango da (Egelako apunteak, bakarkako zein taldeko lanak).

Irakasgaia aprobatzeko, ebaluaketarako parte guztiak onartu beharko dira. Ohiko deialdian baterenbat onartuko ez balitz, onartutako parte ez-ohiko deialdirako gordeko litzateke. Hala ere, ez dira notak gordeko kurtso batetik bestera.

AZKEN ebaluazio sistemako portzentaiak:

- Banakako ariketak (notaren %50).
- Bukaerako frogak (notaren %50).

Ebaluazio era honetan, eta Etika Akademikoarekin buruzko protokoloaren arabera (5. orrialdeko 3. puntua):

"UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere".

Ebaluazio finalean ere, irakasgaia aprobatzeko, parte guztiak onartu beharko dira. Ohiko deialdian baterenbat onartuko ez balitz, onartutako parte ez-ohiko deialdirako gordeko litzateke. Hala ere, ez dira notak gordeko kurtso batetik bestera.

Kontuan hartu beharrekoa ere, Etika Akademikoarekin buruzko protokoloaren arabera:

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkoak ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan akademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiak, hau da, ignoratzen diren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntua).

Bestalde, "Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia" 11.3 artikulua arabera:

Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspenso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio.

Azken ebaluazio sistemara aldaketa

Ikasleak, nahiz eta ebaluazio jarraian hasi, azken ebaluazio sistemara pasa daiteke, baldin eta irakasleari eskaera idatziz egiten bada; lau hilabete hasi eta bederatzigarren asterarte du epea.

Ebaluazio jarraiaren kasuan deialdiari uko egitea

Ikasleak deialdiari uko egin ahal izango dio ebaluazio jarraia sistemari, lehenengo lauhilabeteko irakaskuntza garaia bukatu baino hilabete lehenagoko epean gehienez. Eskaera hau irakasleari idatziz helaraziko zaio.

Azken ebaluazio sistemaren kasuan, azterketa data ofizialean ez aurkeztean deialdiari automatikoki uko egiten zaio.

Aurreko bi kasuetan, kalifikazioa EZ AURKEZTUA izango da.

Osasun egoera dela eta (COVID19), azken froga presentzialki egitea ezinezkoa balitz, ebaluazio jarraia eta azken ebaluazioaren kasuan, jarraibideak honakoak izango dira:

- Ebaluazio lanak pdf bakar batean Egelara igo beharko dira, onartutako egutegi ofizialean zehaztutako egunean.
- Testu komentario froga egingo da. Egiteko prozedura hau da: irakasleak testua eta honi dagokion galdera sorta bidaliko ditu, azterketa egutegian zehaztutako egun eta orduan, eta egindako froga handi bi ordu t#8217;erdira bidaliko zaio irakasleari bueltan. Egiteko, lau hilabetean zehar landutako materiala erabili ahal izango da (Egelako apunteak eta banakako lanak).

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraia zein azken ebaluazio sisteman, ohiko deialdiko ebaluazio portzentaia berdinak mantentzen dira ezohikoan. Bietan parte guztiak gaintitu beharko dira. Ohiko deialdian ebaluagai diren parteetariko bat gaintituko balitz, ez ohiko deialdi hontarako emaitza positibo horiek mantenduko lirateke.

Ez dira kurtso batetik bestera gaintitutako parteen kalifikazioak gordeko.

Uko egitea

Ikaslegoak deialdiari uko egin ahal izango dio ebaluazio jarraia sistemari, lehenengo lauhilabeteko irakaskuntza garaia bukatu baino hilabete lehenagoko epean gehienez. Eskaera hau irakasleari idatziz helaraziko zaio.

Azken ebaluazio sistemaren kasuan, azterketa data ofizialean ez aurkeztean deialdiari automatikoki uko egiten zaio.

Aurreko bi kasuetan, kalifikazioa EZ AURKEZTUA izango da.

Osasun egoera dela eta (COVID19), azken froga presentzialki egitea ezinezkoa balitz, ebaluazio jarraia eta azken ebaluazioaren kasuan, jarraibideak ohiko deialdirako zehaztu diren berdinak izango dira.

### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Egelan eskegiko dira irakasgaiari erabili beharreko materiala, testu osagarriak eta irakaslearen oharra.

### **BIBLIOGRAFÍA**

#### **Oinarrizko bibliografia**

- \* Collins, Randall (2010). Conflict Sociology: a sociological classic updated. London: Paradigm Publishers.
- \* Dahrendorf, Ralf (1993). El conflicto social contemporáneo. Madrid: Mondadori.
- \* Lorenzo, Pedro Luis (2001). Fundamentos teóricos del conflicto social. Madrid: Siglo XXI.
- \* Ritzer, George (1996). Teoría sociológica contemporánea. Madrid: McGraw-Hill.
- \* Simmel, Georg (2010). El conflicto. Madrid: Sequitur.

#### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

- \* Alzate, R.(1998). Análisis y resolución de conflictos. Una perspectiva psicológica. Bilbao: Servicio Editorial Universidad del País Vasco.
- \* Ararteko (2006). Convivencia y conflictos en los centros educativos. Informe extraordinario del Ararteko sobre la situación en los centros de Educación Secundaria de la CAPV. Vitoria-Gasteiz: Ararteko.
- \* Aronson, B. (2008). "La visión weberiana del conflicto social", Conflicto Social, nº0, pp. 108-131.
- \* Deutsch, M.; Coleman, P.T. eta Marcus, E.C.(eds.). The handbook of conflict resolution. San Francisco: Wiley.
- \* Entelman, R. (2002). Teoría de conflictos. Madrid: Alianza Editorial.
- \* Fernández, J. (2006). Ser humano en los conflictos. Madrid: Alianza Editorial.

- \* Furlong, G.T. (2005). The conflict resolution Toolbox. Ontario: Wiley.
- \* Galtung, J. (1998). Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución. Bilbao: Bakeaz, Gernika Gogoratz.
- \* Grover, K., Grosch, J., Olczak, P. (1996). La mediación y sus contextos de aplicación. Una introducción para profesionales e investigadores. Barcelona: Paidós Mediación.
- \* Lederach, J.P. (1998). Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas. Bilbao: Bakeaz/Gernika Gogoratz.
- \* Munne M. y Mac-Cragh P. (2006). Los 10 principios de la cultura de mediación. Grao: Barcelona
- \* Olalde, A.J. (2010). "Transformación de conflictos y mediación: nuevo yacimiento de empleo para el trabajo social", Revista de Servicios Sociales y Política Social, nº89, pp. 65-82.
- \* París, S. (2007). Reconstruir la identidad social de las mujeres para la transformación pacífica de los conflictos, Feminismo/s, nº9, pp. 107-120.
- \* París, S. (2009). Filosofía de los conflictos. Una teoría para su transformación pacífica. Barcelona: Icaria Antrazyt.
- \* Silva, G. (2008). "La teoría del conflicto. Un marco teórico necesario", Prolegómenos: derechos y valores, nºXI (22), pp.29-43.

#### **Aldizkariak**

- \* Journal of Conflictology  
<http://journal-of-conflictology.uoc.edu/joc/es/index.php/journal-of-conflictology/index.html>
- \* Conflict Resolution Quarterly  
[http://onlinelibrary.wiley.com/journal/10.1002/\(ISSN\)1541-1508](http://onlinelibrary.wiley.com/journal/10.1002/(ISSN)1541-1508)
- \* International Journal of Conflict and violence  
<http://www.ijcv.org/index.php/ijcv>
- \* Journal for the Study of Peace and Conflict  
<http://www.uwsp.edu/cols-ap/WIPCS/Pages/journal.aspx>
- \* Peace Conflict Development. An interdisciplinary journal  
<http://www.bradford.ac.uk/ssis/peace-conflict-and-development/>
- \* Revista Mediatio (Sevilla)  
<http://www.upo.es/mediacion/mediatio>

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

- Association for Conflict Resolution, <http://www.acrnet.org>
- Mediate.com, everything mediation, <http://www.mediate.com>
- The Center for Nonviolent Communication, <http://www.cnvc.org/es>

#### **OHARRAK**

Ortografia, gramatika zein erredakzio desegokitasunek, suspentsoa ekarri lezakete.